

Ategorrieta Proiektua: batzarra

Gogoan izan datorren maiatzaren 24an, arratsaldeko 17:30ean, bilera informatibo bat egingo dugula Ategorrieta Proiektuaren lanketa integralaren inguruan. Bilerarako [izen-ematea](#) zabalik dago maiatzaren 18ra bitartean.



GKAI ate irekiak

Maiatzaren 19 eta 20an egingo ditugu GKAI Gizarte eta Kirol Animazioa eta Irakaskuntza zikloko ate irekiak, eta horren harira, ziklo honetako hainbat ikasle-ohik [bideoak](#) bidali dizkigute beren esperientzia kontatuz. Gogoratu, ate irekietan parte hartzeko [zurriolaikastola.eus](#) webgunean izena eman behar dela.



Bizi gira... Kutxa bira!

Hondarpe Groseko Auzo Elkarateak gonbidapena egiten digu auzoko kideei Iparra Hegoa elkarateak martxan jarri duen "Bizi gira... Kutxa bira!" egitasmoan parte hartzeko. Izan ere, Gros auzoa ekimenera batu da, eta datorren maiatzaren 29an ekimen horretako kutxa auzoan izango dugu. [Info +](#).



Ekin Euskarari astea

Euskararen erabilera-neurketak ikasleen artean partekatu, aztertu eta landu ondoren, aste honetan Ekin Euskarari Astea izan dugu ikastolan, eta gela ezberdinetako proposamenak burutu ditugu. Denetarik izan dugu: azoka, euskarazko futbol-partida, txankleta eta betaurreko egunak, brillet partida, euskarazko irratia aldeko deia, jolasak, txapon sorgindua, paperezko shuriken-ak...



Tinko Euskaraz Zinema HH4-5

Aste honetan, 4 eta 5 urtekoek Tinko Zinemaz gozatzeko aukera eduki dugu: "KOKO dragoi txikia oihanean" filma ikusi dugu. Izugarri gustatu zaigu!! Asteburuan ere zuen familiakoekin filmaz gozatzeko aukera edukiko duzue; lotura eta pasahitza zuen (gurasoen) helbide elektronikoetan jasoko dituzue. Prestatu krispetak, eta gozatu!



Landare eta sendabelar artean Ulian

Aste Santuko oporren aurretik eta udaberriaren atarian, Batxilergo 1eko Biologiako ikasleak Uliara joan ginen, gelan ikasitakoa bertatik bertara ikustera. Izan ere, landareen gaia landu dugu hirugarren ebaluaketan, eta Uliia bertan dugula aprobetxatuz, bertako landareak eta batez ere sendabelarrak ikertzera atera ginen. Jasotako informazioarekin, azalpen bideoak egin ditugu. Aste honetan lehen [hiru bideoak](#) eskaintzen dizkizuegu, eta datozen asteetan izango dituzue ikusgai gainerakoak. Gozatu eta ezagutu gure inguru hurbila.



Musika eta Dantza Eskolaren eskaintza

Zurriola Musika eta Dantza Eskolaren [webgunean](#) bideo txiki bat dugu ikusgai, datorren ikasturtean eskainiko diren ikasgai guztiekin.



OHARRAK / AGENDA:

- **HH5:** Basoeskola. HH5A-B (Ainere-Miren) goizpasa, maiatzak 19. HH5C-D (Amaia-Aitziber) goizpasa, maiatzak 21.
- **HH4:** Basoeskola. HH4C-D (Irati-Maddi) goizpasa, maiatzak 18 eta egunpasa maiatzak 21.
- **HH-LH:** Ikasturte amaierako [guraso bilera orokorrak](#).
- **LH6:** Aste honetan ACWY Meningokokoaren eta Giza Papilomaren 2. dosiaren txertaketa. Eguna zehazteke.
- **DBH3:** Piraguisimo-saioa. Maiatzak 20.
- **DBH4:** Boluntariotza-saioak (Ireki Begiak). Maiatzak 19.
- **2021-22 ikasturteko eskolaz kanpoko eskaintza:** Datorren astean bidaliko da.
- **Groseko Hautxokoa:** Maiatzeko [programazioa](#).

